



## Espetxealdiaren kartografiak

 Iratxe Retolaza

**M**arkel Ormazabalen kartzela-kronika honek Lisabören kantu bat hartu du izenburu: *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*. Musika-oihartzunez josita dago kronika, atalez atal, izenburuz izenburu. Kartzela-kronika honek musika-egile, musika-talde eta kantu zenbait ditu geltoki nagusi: Ama Say, Anestesia, Dut, Hertzainak, Inoren Ero ni, Mikel Laboa, Xabier Lete, Ruper Ordorika, Willis Drummond.... Horietan zehar eginiko ibilbide pertsonala proposatzen digu Markel Ormazabalek.


Kantuak ditu akuilu kartzelako hots errepikakor eta izugarriei aurre egiteko. Kantua, bada, disidentziarako espazio bihurturik dugu kronika honetan, kartzelaren erritmoa eta espetxealdiaren melodia hausteko bitarteko, ihes egiteko ahalegin. Intsumisio-ekintza, nortasuna eraikitze bide. Aldi berean, musi-

kak kultur komunitate baten kide egiten du presoa, nortasun kolektiboa eraikitze bidean. Gainera, kantuak kronika honetan ez dira soilik ihesbiderako melodia, gogoeta-leku ere badira, pentsamendua garatzeko espazio.

Izan ere, kantu-bilduma hori iparrat hartuta, kartografo-lanetan dabil egilea. Angelu-itsuz jositako geografiari aurrez aurre begiratu, eta arnasbideak bilatzen ditu geografia herstuan zein itogarrian, kartzelak pertsona irentsi ez dezan. Horretarako, kartzelaren geografia du hizpide nagusi, espazio horren askotariko ertzak aipatuz: leihoak, ziega, patioa, komunikazio-gelak, galeriak, hormak... Espazioaren inguruko erreferentziaz josita dago testua, baina, kronika-egileak ez digu espazio pertsonalaz hitz egiten, ez digu esperientzia fisiko pertsonal hori kontatzen. Ez da lekukotza-ekintza hutsa,

areago doa. Kronika itxialdi horri eta itotze pertsonal horri aurre egiteko bidea du, baina, baita ere espetxealdien izugarrikeria ulertzeko ahalegin. Kartzelaren logikaz jabetu nahi du, ez jakina logika horrekin bat egiteko, logika krudel hori salatze baidetik, eta baita logika horri aurre egiteko baliabideak izateko ere. Mamutzar horren eraikuntza nondik datorren ulertu nahi du, harrapatuturik duen geografia ankerraz jabetzeko edo. Mamutzarri buruz buru begiratze baidetik adorea izateko.

Horretarako, ez du egiten kartzelaren espazioaren deskribapenik, baizik eta kartzela-geografiaren askotariko diskurtsoak biltzen ditu: arkitektura, hizkuntza, espazioen inguruko eraikuntza sinbolikoak... Horretarako, kartzelaz jardun duten idazle, pentsalari edota presoen ahotsak josten ditu: lekukotzak, historian zehar kartzelari buruz eraikitako diskurtsoak, munduko kartzela batzuetan gertaturiko pasadizo gogoangarriak... Modu horretara, bere esperientzia pertsonalaz haratago jotzen du, esperientzia pertsonal hori bizipen kolektibo ere irudikatze baidetik. Kartografo honek, beraz, kartzelaren geografiak irudikatuz, kartzelaren mapak bestelakotu nahi ditu, bere kokapenaz beste egin nahi du. Azken batean, kantuen eta gogoeten bidez, zauri-mapa bat egin du, baina, batez ere zauri-mapa horri aurre egiteko afektu-mapa eraiki du kronika-egileak. Afektu-mapa hori askotariko keinuekin osatu du: kantuak, kideen lekukotasunak, pentsalarien gogoetak...



Kartzela-kronika genero literario berezitua dugu, eta euskal literaturan badu gainera ibilbide propio bat. Kartzela-kronikek, baina, badute bestelako kronika-moldeen oihartzunik. Bazterturiko

ahotsek, isilduriko ahotsek diskurtso autobiografikoetara jo ohi dute ukaturiko nortasun hori gorpuzteko. Kartzela-kronikaren bidez ere presoak ahotso gorpuztea du helburu, gizarteak eta espetxeak ukatu dion hitza eta nortasuna aldarrikatzea. *Hemen naiz, ez gelditzeko baina* kronikak ere premia horri erantzuten dio. Baina, aipatu bezala, badu kronika honek ezaugarri berezi bat: denbora bainoago, ardatz kronologikoa bainoago, geografiak ditu zutabe nagusi. Kartzelaren logika geografia-logika bat delako, espazio egituraketa bat, gizarte-eraikuntza bat. *Heterotopia*, Michel Foucaulten hitzetan. *Kronos* ere badugu kartzela, baina batez ere *topos* krudel eta ikaragarria dugu.\*

ekaina

liburu gomendatua

## Markel Ormazabal HEMEN NAIZ, EZ GELDITZEKO BAINA

Kartzela-kronika honek Lisabören kantu bat hartu du izenburu: *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*, musika-oihurtzunez zipriztinduta baitaude orriok, eta kantu-bilduma hori iparrorratz hartuta, kartografo-lanetan dabil egilea. Angelu-itsuz jositako geografiari aurrez aurre begiratu eta, pertsona irentsi ez dezan, espazio herstuan arnasbideak bilatzen ditu. Horretarako, geografia du hizpide nagusi, lekua-ren askotariko ertzak aipatuz: leihoak, ziega, galeriak, hormak... Mamutzar horren eraikuntza nondik datorren ulertu nahi du, harrapatu duen mundu ankerraz jabetzeko. Ez du tokien deskribapenik egiten, ordea; kartzela-geografiaren askotarikoko diskurtsoak eta esperientziak biltzen ditu. Era horretan esperientzia pertsonalaz haratago jotzen du, bizipen kolektiboa eraikitzeko.

Kartografo honek, beraz, geografiak irudikatuz, mapak bestelakotu nahi ditu, bere kokapenez beste egiteko. *Kronos* baitugu kartzela baina, batez ere, *topos* krudel eta ikaragarria.

Aldaketa  
maiatzaren  
25a  
baino lehen



0508001 TXALAPARTA

TESTIGANTZA

144 or.

Salneurria 16,50 €

Bazkideak 13,20 €



**Jon Markel Ormazabal Gaztañaga** (Donostia, 1982). Gazte mugimenduan aritua, 2002an atxilotu eta kartzeleratu zuten lehen aldiz, *kale borroka* talde batean aritzea egotzita. Jarrai-Haika-Segi sumarioan auzipetua, 2007an bigarren zuten Bilboko Esperantza frontoian, Espainiako Auzitegi Gorenak ezarritako sei urteko kartzela zigorra betetzeko. Kartzela denboran Soziologia ikasketak egin, eta egun alor horretan lanean ari da. Hau da bere lehen liburua.